



Ayuntamiento de Garraido
Garraido Udalak
P31114008
Arostegi plaza, 1 - 31693 Garraido
ayuntamiento@garraido.es
udalak@garraido.es

Garraido Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hogeita lauko abenduaren hemezortzian, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, indarrean dagoen arautegiak eskatutako gutxieneko partaideak elkartu direla. Bilkura alkate andereak zuzendu du, jarraian adierazitako zinegotziak bertaratu dira eta idazkariaren aholkularitza izan dute.

Bildutakoak:

Alkate anderea: Begoña Munárriz Guezala

Zinegotzi jaunak: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte. A.L. Mandacen.

Honakoak dira EGUNEKO GAIAK:

LEHENA. AURREKO BILKUREN AKTAK ONESTEA

Irakurri dira 2024ko urriaren hamaseian, urriaren hogeita hiruan, azaroaren hogeita zazpian eta abenduaren hamaikan egindako bilkuren akta: Eragozpenik agertu ez baita, eta aho batez onetsita gelditu dira.

BIGARRENA. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEI BURZKO INFORMAZIOA

Osoko Bilkurari informatu zioa alkateak honako ebazpen hauek eman dituela:

- 50/2024 Ebazpena, urriaren 18koa, Jaime Barberena Erro jaunari eroritako zuhaitz baten aprobetxamendua ematen diona.
- 51/2024 Ebazpena, urriaren 23koa, R50/2024 zuzendu eta Jaime Barberena Erro jaunari eroritako zuhaitz baten aprobetxamendua ematen diona.
- 52/2024 Ebazpena, azaroaren 4koa, Garaitzeko Asi Kultur Elkartearikiko lankidetzaz hitzarmena onartu eta sinatzen duena.
- 53/2024 Ebazpena, azaroaren 4koa, Garraido Udalari birgaitze proiektua idazteko eta hura berriro irekitzeko bideragarritasun azterlana egiteko zuzeneko dirulaguntza ematea arautzen duen hitzarmena onartu eta sinatzen duena.
- 54/2024 Ebazpena, azaroaren 4koa; honen bidez, Osasuna Fundazioari baimena eman zaio pista erabiltzeko, ikasturtean zehar futbol eskolako entrenamenduak egiteko.

- 55/2024 Ebazpena, azaroaren 7koa, Maderas Barbiur SLri behar ez bezala sartutako zenbatekoa itzultzea ebazten duena.
- 56/2024 Ebazpena, azaroaren 20koa, 2024ko kontribuzio zergari dagokion errolda onartzen duena.
- 57/2024 Ebazpena, azaroaren 20koa, Larraindegia 75 jabekideen erkidegoari obra lizentzia ematen diona, tximiniak konpontzeko eta erretenak garbitzeko.
- 58/2024 Ebazpena, azaroaren 25ekoa, Garrairdako familiek Garralda BHLren atxikipena aldatzeari buruz hartutako erabakia Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiari helarazten diona.
- 59/2024 Ebazpena, azaroaren 29koa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari udal txostena eta espedientea bidaltzen dizkiona.
- 60/2024 Ebazpena, abenduaren 5ekoa, Hezkuntza Departamentuaren eta Garrairdako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzen duena, 2024/2025 ikasturtean beren herriko ikastetxeetan baimendutako eskola jantokietan garraiatu gabeko jankideentzako laguntzak kudeatzeko, eta garraiatu gabeko ikasleen jantoki gastua beren gain hartu duten kontuetan diruz lagundutako zenbatekoak ordaintzea onartzen duena.

Osoko Bilkura ebazpenen edukiaren jakitun geratu da, eta guztiekin ados dagoela adierazi du.

HIRUGARRENA.- 2025EKO AURREKOANTUA HASIERA BATEZ ONESTEA, BIDEZKOA BADA

Udalkideek aztertu eta eztabaidatu dute, dagoeneko, aurrekontuaren zirriborroa.

Arretaz behatu eta aurreikusitako gastu eta diru-sarreraren partida guztiak aztertu ondoren, eta horiek betebeharrak ekonomikoekin eta ezartzen diren baliabideekin bat datozela ikusita, aho batez, hots, legeak eskatzen duen gehiengoarekin, erabaki da:

1. Hasiera batez onestea 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokor bakarra eta haren egikaritze-oinarriak.
2. Horrela onetsitako aurrekontua jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean iragarri ondoren, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten.

LAUGARRENA.- 2025EKO PLANTILLA ORGANIKOA HASIERA BATEZ ONESTEA, BIDEZKOA BADA

Dagokion espedientean agertzen den dokumentazioa azterturik, aho batez erabaki da:

1. Hasiera batez onestea 2025eko Plantilla Organikoa.
2. Ebazpena jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, auzotarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten.
3. Alegaziorik aurkezten ez bada, plantilla behin betiko onetsitzat joko da jendaurrean jartzeko epea igarotakoan.

BOSGARRENA.- 2025EKO TASAK ETA ZERGAK ONESTEA, BIDEZKOA BADA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legean tasak eta zerga-tasak ezartzeari buruz aurreikusitakoarekin bat etorritz, Udalbatzak aho batez ERABAKI DU Garraidan indarrean dauden zergak, tasak eta prezio publikoak mantentzea.

Aldi berean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1992 Foru Legearen 172. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, Osoko Bilkurak erabaki du hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren zirriborroa egitea eta haren onarpena atzeratzea.

SEIGARRENA.- UDAL LOKAL BAT ERRENTAN JARTZEA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONESTEA, BIDEZKOA BADA

Udal korporazioari jakinarazi zaio harakinaren errentamendu-kontratua aurki amaituko dela.

Horregatik, beharrezkoa da Garraidak 1. poligonoko 52. lurzatian dagoen udal lokala errentan hartzeko agiri arautzailea onartzea.

Idazkaritza honek dauden lizitazio-modalitateen berri ematen du, eta korporazioak erabaki du aukerak aztertzea lizitazioa onartu aurretik; beraz, puntua hurrengo batean aztertzeko gelditu da.

ZAZIPGARRENA.- 2025KO EGUTEGI FISKALA ONESTEA, BIDEZKOA BADA

Segurtasun juridiko handiagoa bermatze aldera, eta ondorengo baliabideak zergadunen erregistroetan oinarrituta likidatzen direnez, jakinarazpen pertsonalik egin beharrik gabe, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Bilketako Erregelamenduaren

77. artikuluaaren arabera, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 86.3 eta 143 artikuluen arabera, osoko bilkurak aho batez ERABAKI DU:

1. 2025eko ekitaldirako tributuak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk ordaintzeko borondatezko aldiak onartzea, kasuan kasuko ordenantza fiskalen edo prezio publikoak erregulatzen dituzten arauen arabera, eta, hala badagokio, baldintzen pleguen arabera, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean zergen sortzapenari buruz ezarritakoaren arabera. Hona hemen tributu horiek:

- a) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: apirilaren 15etik maiatzaren 15era.
- b) Herriko bazkalekuen errentamendua: ekainaren 15etik uztailaren 15era.
- c) Lurraldeko kontribuzioa (hirikoa eta landakoa): abuztuaren 15etik irailaren 15era.
- d) Ur-hornidura: uztailaren 15etik abuztuaren 15era bitartean, lehen seihilekoa; eta urriaren 15etik azaroaren 15era bitartean, bigarren seihilekoa.

2. Honako baldintza hauek onestea:

- Likidazioak kobratzeko helbideratuko dira, ordaintzeko borondatezko epea igarota.
- Ordainketak helbideratuta ez duten zergadunek Garraialako Udalak dituen banku-kontuetan transferentzia bidez egin ditzakete, borondatezko aldian.
- Borondatezko epea iragandakoan, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 117. artikuluan aurreikusitako 100eko 5eko errekaru exekutiboa aplikatuko da, eta premiamendu bidez kobratzeko izapideak hasiko dira.
- Egindako likidazioen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete zuzenean Nafarroako Auzitegi Nagusiko ordena bereko salan, edo, hala badagokio, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan, bi hilabeteko epean, borondatezko ordainketaren azken egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, edo, aldez aurretik eta nahi izanez gero, honako errekurtso hauetako batzuk:

- a) Berraztertzeke errekurtsua, ebazpena eman duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, borondatezko ordainketaren azken egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, borondatezko ordainketaren azken egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 143. artikuluan lurralde-kontribuzioari buruz aurreikusitako salbuespen eta berezitasunekin.

ZORTZIGARRENA.- INFORMAZIOAK, KOMUNIKAZIOAK ETA BESTE GAI BATZUK

Interesgarriak izan daitezkeen ebazpen hauen berri ematen da:

- 560E/2024 Ebazpena, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendari gerentearena, frontoia trinketa bihurtzeko obretarako Garraaldako Udalari 100.000 euro ordaintzea onartzen duena.

- 434E/2024 Ebazpena, azaroaren 18koa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiarena, Erronkari, Otsagabia, Garralda, Auritz, Erroibar, Aurizberri eta Luzaide toki-erakundeei gastua baimendu eta 120.000,00 euro ordaintzeko agintzen duena ez baita Kudeaketa Batzorderik eratu behar.

, beren herrietako ikastetxeen funtzionamendu gastuak, 2024koak, finantzatzen laguntzeko.

- 229/2024 Ebazpena, 2024ko abenduaren 9koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiarena.

- 535E/2024 Ebazpena, abenduaren 16koa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiarena, Garraaldako Udalari 50.000 euroko dirulaguntza eman eta ordaintzen diona, hiltegia birgaitzeko proiektua idazteko eta hura berriro irekitzeko bideragarritasun-azterlana egiteko.

- 687/2024 Ebazpena, abenduaren 13koa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiarena, Nafarroako toki entitateei konpentsazio gisa urtero egin beharreko ekarpena onartzen duena, 2024ko ekitaldiari dagokiona, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren erreformatik eta horren bigarren irtenbidearen likidaziotik eratorritako diru-bilketaren galeragatik.

BEDERATZIGARRENA.- FAKTURAK

Egindako azken Osoko Bilkuratik hona ordaindutako fakturen berri eman da. Modu berean, adierazi dira epe berean zer diru sarrera gertatu diren, eta Udalbatzak jakinaren gainean gelditu eta gastu eta diru sarrerekin adostasuna agertu du.

HAMARGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK

Ez da egin.

Eta aztertzekeo gai gehiagorik agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko gaueko bederatziak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.